

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 8,30 horas del día 7 de marzo de 2018, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Iñaki Xabier Yoller Urdiroz, D. Pedro Juan Karrika Narbaitz, y D. Francisco Javier Dufur Oharriz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Luis De Potestad Tellechea, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusan su asistencia los/as Concejales D^a Aneva Cilveti Loperena, D. Arkaitz Karrika Iribarren y D. Mikel Gaztelu Alonso.

1.- APROBACION CONVENIO PARA LA CAPTACION DE CANALES DE TELEVISION ETB

Tras las reuniones que se han mantenido en 2017 al objeto de dotar a la zona que comprende a las entidades de Auritz-Burguete, Valle de Arce, Valle de Erro, Oroz-Betelu, Orreaga-Roncesvalles, Luzaide-Valcarlos y Valle de Aezkoa de la cobertura de diferentes canales de televisión que en la actualidad no pueden ser captados, en particular aquéllos que emiten todo o parte de sus programas en euskera, como medida de fomento y normalización de esta lengua, además de pretender dar solución a los problemas de cobertura que alguno de estos canales tiene en la actualidad en estos Valles, se han estudiado distintos modelos y propuestas, llegándose a un consenso en zona para la captación de los canales que se consideran de interés.

Se propone regular mediante un Convenio de Colaboración entre las entidades locales de la comarca precitadas los derechos y obligaciones de todas las partes intervinientes, así como el modo de adjudicar y gestionar la instalación que se deriva del mismo.

El Convenio a suscribir se basa en la regulación sobre cooperación interlocal contenida en el Art. 70 de la Ley Foral 6/1990 de 2 de julio, y tiene por objeto la regulación de la adjudicación de las obras de instalación y mantenimiento posterior de las infraestructuras necesarias para la captación de los canales de televisión Euskal Telebista 2 (ETB2), Hamaika telebista, Xalao Telebista y Nafar Telebista-11

(NTB11) en la comarca definida y la financiación de las mismas por parte de las entidades firmantes. Las infraestructuras y equipamiento que se deriven de este Convenio se consideran a todos los efectos de uso común para todas las entidades firmantes. Si cualquiera de ellas renunciara a la continuación de este Convenio se considera que renuncia a cualquier reclamación o derecho en cuanto a la propiedad o uso de estas infraestructuras y equipamientos para la captación de televisiones.

Para la captación de los canales especificados se requiere realizar la instalación de equipos en los Centros de Ibañeta, Biskarreta, Iturta, Imizcoz (Nagore incluido aquí), Oroz Betelu y Valcarlos.

La instalación se realizará por las empresas Electro Kaxerna e Ipartel, y comprenderá la colocación de todos aquéllos equipos definidos en el presupuesto (PR24/2017 de 21 de noviembre), y que sean necesarios para la correcta captación de las televisiones especificadas, así como tantas pruebas y ajustes se requieran para su funcionamiento correcto en todos los municipios.

Al objeto de realizar la instalación, las entidades firmantes aprueban el apagado del canal analógico de ETB2, que será sustituido por el sistema digital terrestre TDT,

añadiendo los canales restantes por el mismo sistema digital TDT : Xaloa, Hamaika Telebista y Nafar Telebista -11.

Todos los permisos que sean necesarios para la instalación y puesta en marcha del equipamiento serán tramitados por las empresas adjudicatarias, dejando constancia de esta obligación en el o los documento/s que se suscriban con las mismas.

El importe total y conjunto de la instalación correspondiente a las televisiones indicadas para la cobertura en los valles de todas las entidades asciende a Quince mil treinta y dos euros con cincuenta y tres céntimos (15.032,53 €) incluidos impuestos y cualquier otro gasto inherente a la instalación.

Las entidades firmantes asumirán los gastos correspondientes a esta instalación y siempre que no supongan un incremento en el presupuesto establecido, de conformidad con los siguientes criterios :

1- El 50% (siete mil quinientos dieciséis euros y veintisiete céntimos) (7.516,27 €) del coste a partes iguales entre todas las entidades locales, que resulta a razón de 1.073,76 € para cada una de las siete entidades locales a suscribir el Convenio.

2- El 50% restante (siete mil quinientos dieciséis euros y veintisiete céntimos) (7.516,27 €) del coste, en proporción al número de habitantes correspondiente a cada Entidad Local según datos censo población año 2016, que resulta para Auritz/Burguete un importe de 661,76 €.

Resultando el total del gasto a cargo del Ayuntamiento de Auritz/Burguete de 1.735,52 €.

La garantía de la instalación se extenderá por plazo de dos años desde su finalización, y cubrirá todo defecto de fabricación o de instalación, exceptuadas las averías que se pudieran producir por fenómenos eléctricos, actos de vandalismo o manipulación por personal ajeno a las empresas instaladoras.

La vigencia del Convenio se establece desde su firma, prorrogándose por anualidades salvo denuncia por cualquiera de las Entidades que deberá ser comunicada al resto con una antelación mínima de un mes.

El alcalde Sr. De Potestad, aclara que si el Gobierno de Navarra concediera oficialmente los canales citados, se podría aprovechar la instalación para captar otros canales distintos, añadiendo que se va a pedir al Gobierno que se haga cargo del coste del mantenimiento de las instalaciones.

Examinado el contenido del Convenio propuesto enviado por la Junta General del Valle de Aezkoa tras la última reunión celebrada el día 23 de enero de 2018 en Aribe, se acuerda por unanimidad lo siguiente :

1º).- Aprobar la suscripción de dicho Convenio de Colaboración para la creación de una red común para la instalación de equipos de captación de canales de televisión entre los Ayuntamientos de Auritz/Burguete, Artzibar/Valle de Arce, Erroibar/Valle de Erro, Luzaide/Valcarlos, Oroz-Betelu, Orreaga/Roncesvalles y la Junta General del Valle de Aezkoa, con las siguientes condiciones :

- Siempre que participen, firmen, colaboren y asuman su respectiva participación económica todas las entidades locales implicadas precitadas.

- El gasto a asumir por el Ayuntamiento de Auritz/Burguete según los criterios fijados asciende a la cantidad total de 1.735,52 €, siempre que no suponga ningún incremento en el presupuesto establecido.

- Cualquier otro gasto durante la vigencia del Convenio por reparación, sustitución, mantenimiento de cualquiera de los equipos instalados deberá ser objeto de previo acuerdo municipal del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.

2º) Autorizar al alcalde Sr. De Potestad, para proceder a la firma del Convenio, en nombre y representación del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.

3º).- Notificar el acuerdo a la Junta General del Valle de Aezkoa y Ayuntamientos de Artzibar/Valle de Arce, Erroibar/Valle de Erro, Luzaide/Valcarlos, Oroz-Betelu y Orreaga/Roncesvalles, como entidades locales participantes.

2.- APROBACION AYUDA VECINOS DE GORRAIZ

Quemada en su totalidad la vivienda de una familia en la localidad de Gorraiz, se ha abierto una cuenta para poder ayudar y paliar al menos económicamente la pérdida que supone quedarse sin un hogar donde vivir, por ello el alcalde Sr. De Potestad propone ayudar a la mencionada familia con la cantidad de 1.000 euros.

Estando todos conformes, si bien consideran que hay que tener cuidado con este tipo de ayudas porque ha habido casos en los que se ha abusado de las mismas, y por tanto hay que asegurarse de que las mismas sirvan para el fin al que se destinan, se acuerda por unanimidad colaborar con la familia de Gorraiz concediéndoles una ayuda de 1.000 €.

3.- MODIFICACION TASAS TRAMITACIONES URBANISTICAS

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que respecto a las tasas que el Ayuntamiento cobra por las tramitaciones urbanísticas, como estudios de detalle, urbanizaciones, reparcelaciones, segregaciones etc, le parecen excesivas, por eso propone reducirlas a la mitad. Preguntan los concejales Srs. Dufur y Yoller cuantas tasas al año se cobran por los mencionados conceptos, se contesta que muy pocas una o dos al año, si bien últimamente se ha aprobado un estudio de detalle. Toma la palabra la Secretaria que expone que el Ayuntamiento de Auritz/Burguete, no dispone de muchos ingresos a parte de las contribuciones, tasas y algunos aprovechamientos, y necesitando recaudar más no considera conveniente adoptar la medida propuesta.

Tras un debate al respecto, retoma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que manifiesta que si hay dudas y no se está conforme con ello, no se modifica la ordenanza y se deja como está.

Los concejales por unanimidad acuerdan, no modificar la ordenanza reguladora de las tasas por tramitaciones urbanísticas y dejarla como está.

4.- APROBACION CONCIERTO DIRECTO CON AEZKOANET

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa que la empresa Aezkoanet ubicada en el polígono de Urrobi, se ha quedado sin local donde ubicar su oficina ya que el edificio donde tenía el arriendo de la misma, ha sido embargado y por tanto ha tenido que salir del mismo, no habiendo podido encontrar ningún otro hasta la fecha. Por ello ante la urgencia del caso y entendiendo que para Burguete, es bueno tener ese servicio en la Villa, se han estudiado diversas posibilidades donde ubicar la mencionada

oficina, entre otras, el Gaztetxe, la oficina habilitada para el proyecto RAK, o la oficina donde se encuentra el Servicio de Euskera. El Gaztetxe por ahora se ha descartado porque no reúne las condiciones, la oficina del RAK también hasta que se consiga permiso para trasladarla a otro local, y por tanto solo queda la oficina del Servicio de Euskera, Servicio que se trasladaría al propio Ayuntamiento habilitando una zona de la sala de sesiones para ello.

Expuesto lo anterior, el alcalde Sr. De Potestad, propone firmar un concierto directo con Francisco Arraez Ciordia, titular de la empresa Aezkoanet, arrendándole la oficina situada en el bajo del Ayuntamiento, cara a la calle San Nicolás, Pol. 5, parcela 37, subarea 2, unidad urbana 1, para instalar la oficina de Consultoría y Taller Informático, y que finalmente es el local donde actualmente están ubicados los mencionados servicios de euskera,.

Debatido el asunto, se acuerda por unanimidad:

1).- *Establecer el concierto directo como procedimiento de adjudicación de la utilización onerosa de la oficina situada en el bajo del Ayuntamiento cara a la calle San Nicolás, Pgno 5, parcela 37, subarea 2, unidad urbana 1 del catastro municipal, conforme a lo preceptuado en los artículos 114 y 115 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra.*

2).- *Adjudicar a D. Francisco Arraez Ciordia la cesión de la utilización onerosa del citado local , mediante contrato de arrendamiento , y con destino al uso de Consultoría y taller informático.*

3).- *Los efectos del presente acuerdo de adjudicación se iniciarán desde la fecha de la firma del contrato de arrendamiento.*

4).- *Aprobar el siguiente Pliego de Condiciones reguladoras del arrendamiento del local :*

PRIMERA.- *El Ayuntamiento de Auritz/Burguete es propietario del local sito en Plaza del Ayuntamiento 1, ubicado en planta baja del edificio de la Casa Consistorial y encuadrado en la parcela 37, subárea 2 , unidad urbana 1, polígono 5, del Catastro de Bienes de Naturaleza Urbana de Auritz/Burguete, calificado como bien patrimonial. Siendo el objeto el arrendamiento de dicho local, quedan excluidas de este condicionado el resto de dependencias de la edificación. En cuanto al procedimiento de adjudicación de la utilización onerosa del local no resulta preceptiva la subasta al no concurrir ninguna de las dos circunstancias descritas en el artículo 115.2 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra , puesto que ni la duración de la utilización será superior a cinco años ni el precio estipulado excede del cinco por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto. No siendo preceptiva la subasta se determina como procedimiento de adjudicación el concierto directo, con arreglo a lo dispuesto en la letra c) del artículo 114.2 del precitado Reglamento de Bienes , es decir , por ser la cuantía del contrato inferior a 6.010,12 € (El precio se refiere al importe de una anualidad). La utilización onerosa del local se cede mediante contrato de arrendamiento en las condiciones fijadas en el presente condicionado , determinando como adjudicatario por concierto directo a D. Francisco Arraez Ciordia.*

SEGUNDA.- *El precio mensual del arriendo (renta) se fija en la cantidad de CIEN EUROS (100,00 €) más el I.V.A. correspondiente. El pago de la renta será mensual , y*

habrá de efectuarse antes de final de cada mes , mediante su ingreso en la Cuenta General que tiene abierta el Ayuntamiento en la Oficina de Auritz/Burguete de la entidad bancaria LA CAIXABANK. El precio se actualizará en función del IPC anual.

TERCERA.- La duración del arrendamiento será de CINCO AÑOS (5) , contado desde el día de la firma del contrato. El arrendatario podrá renunciar al concierto notificándolo al Ayuntamiento con una antelación de dos meses.

CUARTA.- A la celebración del contrato será obligatoria la exigencia y prestación de fianza, en cantidad equivalente a una mensualidad de renta (100,00 €). Dicha fianza será devuelta a la arrendataria una vez finalizado el plazo de arrendamiento, previa comprobación del correcto cumplimiento de las obligaciones y del perfecto estado de uso y conservación del local.

QUINTA.- Al ser servicios centrales, serán de cuenta del arrendador los gastos originados por los servicios de electricidad, y calefacción en tanto en cuanto no instale un contador individual. El local no dispone de instalación de agua. la tasa por recogida de basuras y otros gastos análogos ocasionados por el ejercicio de la actividad, en su caso los gastos de póliza de seguro del contenido destinado a la actividad y de responsabilidad civil por su ejercicio, serán de cuenta del arrendatario. El arrendatario podrá hacer uso de la conexión de internet municipal de forma gratuita. Todo daño que se produzca por el mal uso del local serán de cuenta del arrendatario, que responderá de los desperfectos que se originen en el local arrendado como consecuencia de su uso.

SEXTA.- El arrendatario no podrá subarrendar el local.

SÉPTIMA.- En caso de traspaso del negocio se autoriza al arrendatario la cesión del contrato de arrendamiento del local, debiendo informar previamente al Ayuntamiento (arrendador) de la intención de traspaso con antelación de un mes. Una vez formalizado el traspaso y cedido el contrato de arrendamiento, el arrendatario deberá notificarlo de forma fehaciente al arrendador en el plazo de un mes desde que la cesión se hubiese concertado, aportando copia del acuerdo-documento de cesión del contrato de arrendamiento del local suscrito entre el arrendatario-cedente y el cesionario. El cesionario se subrogará en los mismos derechos y obligaciones del arrendatario-cedente. Para el supuesto de sucesivos traspasos del negocio se autoriza igualmente la cesión del contrato de arrendamiento en las mismas condiciones señaladas en los párrafos anteriores de esta cláusula séptima.

OCTAVA.- Serán de cuenta del arrendatario las obras de adaptación del local al uso solicitado, sin que provoquen una disminución de la estabilidad o seguridad del mismo , y deberán contar con el consentimiento o autorización del arrendador. Sin perjuicio de la facultad de resolver el contrato, si el arrendador no ha autorizado la realización de las obras podrá exigir , al concluir el contrato, que el arrendatario reponga las cosas al estado anterior (referido al estado en que se entrega el local al inicio del arriendo) o conservar la modificación efectuada sin que ésta pueda reclamar indemnización alguna. Si las obras han provocado una disminución de la estabilidad de la edificación o seguridad del local, o sus accesorios el arrendador podrá exigir de inmediato al arrendatario la reposición de las cosas al estado anterior.

NOVENA.- El arrendatario se obliga a mantener el local en las debidas condiciones de seguridad y salubridad, así como a reintegrarlo, al término del plazo pactado , en las

mismas condiciones de uso. El arrendatario deberá cumplir y responder de todas las obligaciones legales de seguridad, higiene..... para el ejercicio de la actividad a desarrollar.

DÉCIMA.- *El incumplimiento por cualquiera de las partes de las obligaciones resultantes del contrato dará derecho a la parte que hubiere cumplido las suyas a exigir el cumplimiento de la obligación o a promover la resolución del contrato. Serán causas de resolución del contrato las siguientes :*

- *La falta de pago de la renta o , en su caso, de cualquiera de las cantidades cuyo pago haya asumido o corresponda al arrendatario.*
- *El vencimiento del plazo.*
- *La falta de pago del importe de la fianza.*
- *El subarriendo del local.*
- *La cesión del contrato sin cumplir lo preceptuado en la cláusula octava.*
- *La realización de daños causados dolosamente en la finca o de obras no consentidas por el arrendador , cuando el consentimiento de éste sea necesario.*
- *Cuando en el local tengan lugar actividades molestas , insalubres , nocivas , peligrosas o ilícitas.*
- *La perturbación de hecho o de derecho que realice el arrendador en la utilización del local. • Las demás causas establecidas en la ley.*

UNDÉCIMA.- *En lo no establecido expresamente en este condicionado , se estará a lo dispuesto en la Ley Foral de la Administración Local de Navarra y Reglamento de Bienes de las Entidades Locales en cuanto a la preparación y adjudicación del contrato y en la Ley de Arrendamientos Urbanos en cuanto a sus efectos y extinción , y demás legislación aplicable en la materia.*

DUODÉCIMA.- *Se dará traslado al adjudicatario D. Francisco Arraez Ciordia de dos ejemplares del Contrato de Arrendamiento del citado local, cuyo texto contendrá las cláusulas del presente condicionado que tiene carácter contractual, al objeto de proceder a su formalización y firma, con efectos desde la fecha de la firma.*

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 9,00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2018ko martxoaren 7ko 8:30ean, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, Pedro Juan Karrika Narbaitz eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkateak, Luis De Potestad Tellechea izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Aneva Cilveti Loperena, Arkaitz Karrika Iribarren eta Mikel Gaztelu Alonso zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute.

1.- ETB TELEBISTA-KANALAK HARTZEKO HITZARMENAREN ONESPENA
2017an bilerak egin dira Auritz, Artzibar, Erroibar, Orotz-Betelu, Orreaga, Luzaide eta Aezkoa biltzen duen eremuan gaur egun hartzen ez diren telebista-kanalak hartzeko aukerak aztertzeko, gehienbat euskara sustatzeko eta

normalizatzeko asmoz euskaraz soilik edo gehienbat emititzen duten kanalak hain zuzen ere, eta aldi berean horietako kanal batzuk hartzeko gaur egun dauden arazoei irtenbidea emateko, eta proposamenak aztertu ondoren adostasun batera iritsi da interesekoak izan daitezkeen kanalak hartzeko.

Proposatu da eskualdeko toki entitateen artean Lankidetzaz Hitzarmena sinatzea, parte hartuko dutenen eskubide eta betekizunak zehaztea baita jarriko diren instalazioak adjudikatu eta kudeatzeko modua ere.

Sinatuko den Hitzarmena uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 70. Artikuluan toki entitateen arteko elkarlanaren arautzean oinarritzen da eta haren helburua da aipatutako eskualdean Euskal Telebista 2 (ETB2), Hamaika telebista, Xaloa Telebista eta Nafar Telebista-11(NTB11) telebista-kanalak hartzeko azpiegiturak jartzeko lanen adjudikazioa baita horien mantentzea eta toki entitate sinatzaileen finantzazioa. Hitzarmen honetatik eratorriko diren azpiegitura eta ekipamenduen erabilera toki entitate sinatzaile guztiena izanen da. Edozein entitatek Hitzarmenetik atera nahiko balu telebista-kanalak hartzeko azpiegitura eta ekipamenduen jabetza edo erabilera erreklamatu edo horiekiko eskubideei uko egiten diela kontsideratuko da.

Aipatutako kanalak hartzeko beharrezkoa da ekipamenduak jartzea Ibañetan, Bizkarretan, Iturtan, Imizkotzen (Nagore hemen sartuta), Orotz-Betelun eta Luzaiden.

Instalazioa Electro Kaxerna eta lpartel enpresek eginen dute, errandako telebista-kanalak hartzeko beharrezkoak diren aurrekontuan aipatutako ekipamendu guztiak jartzea (azaroaren 21eko PR24/2017), bai eta udalerrir guztietan modu egokian hartzeko proba eta egokitzapen guztiak egitea ere.

Instalazioa egiteko toki entitate sinatzaileek ETB2 kanal analogikoa itzaltzea onesten dute, TDT sistemaren bidez ordezkatzeko, eta gainerako kanalak ere TDT sistemaren bidez gaineratuko dira: Xaloa, Hamaika Telebista eta Nafar Telebista –11.

Ekipamendua instalatzeko eta martxan jartzeko behar diren baimen guztiak enpresa adjudikaziodunek bideratuko dituzte eta haiekin sinatuko diren dokumentuetan betekizun hori adieraziko da.

Ibar guztietan aipatutako telebista-kanalek estaldura egokia izateko jarri beharrezko instalazioaren zenbateko osoa hamabost mila eta hogeita hamabi euro eta berrogeita hamahiru zentimo da (15.032,53 €), zergak eta instalazioari dagozkion gainerako gastuak barne,

Entitate sinatzaileek instalazioari dagozkion gastuak bere gain hartuko dituzte, beti ere ezarritako aurrekontua baino gehiago ez badira, honako irizpideen arabera:

1.- Kostuaren %50 (zazpi mila bostehun eta hamasei euro eta hogeita zazpi zentimo) (7.516,27 €) toki entitate guztien artean hainbanatuko da, hau da, 1.073,76 € hitzarmena sinatuko duten zazpi entitateetako bakoitzak ordaintzeko.

2.- Gainerako %50 (zazpi mila bostehun eta hamasei euro eta hogeita zazpi zentimo) (7.516,27 €) 2016ko biztanle erroldan entitate bakoitzak zeukan

biztanle kopuruaren arabera banatuko da, hortaz, Aurizko Udalak 661,76 € ordainduko ditu.

Aurizko Udalak guztira 1.735,52 € ordainduko ditu.

Instalazioaren bermea jarri ondoko bi urtez luzatuko da eta ekoizpen edo instalazioaren akats guztiak barne hartuko ditu; kanpo geldituko dira fenomeno elektrikoek sor ditzaketan matxurak, bandalismo ekintzen ondoko matxurak edo instalazioa egin duten enpresetakoak ez direnek maneatzeagatik sor daitezkeen kalteak.

Hitzarmenak sinatzen denetik hartuko du indarra, eta urtero luzatuko ahalko da; edozein Entitatek hitzarmena sala dezake gainerako entitateei hilabete lehenago jakinaraziz.

Alkateak, de Potestad jk., argitu du Nafarroako Gobernuak aipatutako kanalak ofizialki har daitezkeela onartuko balu, instalazioa bertze kanal batzuk hartzeko erabili ahalko litzatekeela, eta Gobernuari eskatuko zaiola instalazioen mantentze gastuez arduratzea.

Ariben 2018ko urtarrilaren 23an egindako bileraren ondoren Aezkoako Batzarre Nagusiak igorri duen Hitzarmen proposamena aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Telebista kanalak hartzeko beharreko tresneria jartzeko sare komuna eratzeko Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea Auritz, Artzibar, Erroibar, Luzaide, Orotz-Betelu eta Orreagako Udalen eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren artean, honako baldintzak ezarriz:

- Beti ere aipatutako toki entitate guztiek parte hartu, sinatu, lagundu eta norberaren ekarpen ekonomikoa onartzen badute.

- Aurizko Udalak bere gain hartuko duen gastua osotara 1.735,52 € dira, ezarritako irizpideen arabera, beti ere ezarritako aurrekontuan igoerarik gertatzen ez bada.

- Hitzarmenak iraun bitartean tresneriaren konponketa, ordezkatzeko edo mantentze gasturik suertatuz gero, aldeztu aurretik Aurizko Udalaren erabakia beharrezkoa izanen da.

2) Alkateari, de Potestad j., ahalmena ematea Hitzarmena sinatzeko Aurizko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

3º).- Erabakiaren berri Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Artzibar, Erroibar, Luzaide, Orotz-Betelu eta Orreagako Udalei ematea, hitzarmenean parte hartzen dutelako.

2.- GORRAIZKO BIZILAGUNEI LAGUNTZA EMATEA

Gorraizko familia baten etxebizitza erabat erre denez, kontua zabaldu da laguntza eman eta bizitzeko tokirik gabe gelditzeagatik sortutako kalte ekonomikoa neurri batean gutxitzeko, hortaz, alkateak, de Potestad jk., proposatu du familia horri 1000 euroko laguntza ematea.

Bertan dauden guztiek ados daudela diote, baina gaineratu dute kontuz ibili behar dela horrelako laguntza ematean, zenbait kasutan gehiegikeriak eman

baitira eta laguntzak ematen direnerako erabiliko direla ziurtatu behar baita; aho batez erabaki da Gorraizko familiari 1000 euroko laguntza ematea.

3.- HIRIGINTZAKO TRAMITAZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta esan du Udalak hirigintzako tramitazioengatik (xehetasun azterlanak, urbanizazioak, lurzatiek zatiketak, bereizketak, etab.) kobratzen dituen tasak gehiegizkoak iruditzen zaizkiola eta erdira jaistea proposatu du. Dufur eta Yoller zinegotziek galdetu dute urtean zenbat tasak kobratzen diren kontzeptu horiengatik, eta erantzun die gutxi, bat edo bi urtean, eta azkenaldian xehetasun azterlan bat onetsi dela. Idazkariak hitza hartu du eta azaldu du Aurizko Udalak ez duela diru-sarrera handirik, kontribuzioak, tasak eta zenbait aprobetxamenduez aparte, eta diru gehiago lortu behar duenez ez duela uste proposatutako neurria egokia denik.

Gaia eztabaidatu ondoren alkateak hitza hartu du eta esan du zalantzak baldin badaude eta adostasunik ez badago, ez dela ordenantza aldatuko eta dagoen moduan utziko dela.

Zinegotziek erabaki dute aho batez hirigintzako tramitazioak arautzen dituen ordenantza ez aldatzea.

4.- AEZKOANETEKIN HITZARMEN ZUZENA EGITEA ONARTZEA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Aezkoanet enpresak, Urrobi industrialdean zegoena, tokirik gabe gelditu dela alokaturik zeukan bulegoaren eraikina enbargatu baitute eta, hortaz, handik atera behar izan duela, eta ez duela tokirik aurkitu. Kasuaren urgentziaren aurrean eta Aurizko herriarentzako horrelako zerbitzu bat edukitzea onuragarria dela uste baitu, hainbat aukera aztertu ditu zerbitzuari lekua bilatzeko, besteak beste, gaztetxea, RAK proiektuaren bulegoa edo Euskara Zerbitzuarena. Gaztetxea baztertu da ez duelako baldintzarik betetzen, RAK bulegoa ere, eta gelditzen den bakarra Euskara Zerbitzuarena denez, zerbitzu hori udaletxeko bilkura aretora eramanen da.

Hori guztia azaldu ondoren, alkateak, de Potestad jk., proposatu du hitzarmen zuzena sinatzea Francisco Arraez Ciordiarekin, Aezkoanet enpresako jabea, eta udaletxeko beheko solairuan, San Nikolas karrikan, 5. poligonoko 37 lurzatian, 2. azpiarea, 1 hirigintza unitatean dagoen bulegoa alokatzea Informatikako Aholkularitza eta Tailerra bertan jartzeko, gaur egun euskara zerbitzua dagoen bulegoan hain zuzen ere.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1).- Udaletxeko beheko solairuko San Nikolas karrikako aldean dagoen bulegoa, Udal katastroko 1 hirigintza unitatea, 2 azpiarea, 5 poligonoko 37 lurzatia, kostubidez erabiltzeko adjudikazio prozedura Hitzarmen zuzena ezartzea, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Arautegiaren 114 eta 115 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2).- Aipatutako lekuaren kostubidezkoa erabilera Francisco Arraez Ciordiari adjudikatzea, alokairu kontratu bidez, bertan Informatikako Aholkularitza eta tailerra jartzeko.

3).- Adjudikazio erabaki honek alokairuaren kontratua sinatzen denetik hartuko du indarra.

4).- Lekua alokatzeko Baldintza Arautzaileen Plegu hau onartzea:

LEHENA.- Udaletxeko beheko solairuko San Nikolas karrikako aldean dagoen bulegoa, Udal katastroko 1 hirigintza unitatea, 2 azpiarea, 5 poligonoko 37 lurzatia Aurizko Udalarena da eta ondare ondasun gisa dago sailkatua. Helburua leku hori alokatzea denez, baldintza plegu honetatik kanpo gelditzen dira eraikineko gainerako gelak. Tokiaren kostubidezko erabilera adjudikatzeko prozedurari dagokionean, enkantea egitea ez da beharrezkoa Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Arautegiaren 115.2 artikuluan ezarritako baldintzetako ezta bat ere ez delako ematen, erabiltzeko epeak ez delako bost urte baino gehiago iraunen eta ezarritako prezioa ez baita aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost baino altuagoa. Enkantea ezinbestekoa ez denez, adjudikatzeko prozedura hitzarmen zuzena izanen da, aipatutako Ondasunen Arautegiaren 114.2 artikularen c) zatian ezarritakoaren arabera, hots, kontratuaren zenbatekoa 6.010,12 € baino gutxiago baita (prezioa urte betekoa da). Lekuaren kostubidezko erabilera alokairu kontratu bidez ematen da, baldintza plegu honetan ezarritako baldintzetan, eta adjudikazioduna Francisco Arraez Ciordia izanen da.

BIGARRENA.- Alokairuaren hilabeteko prezioa (errenta) EHUN EURO (100,00 €) da, gehi dagokion BEZa. Ordainketa hilabetero eginen da eta hilabete bakoitza bukatu aurretik eginen da Aurizko Udalak Caixan duen kontu korrontean eginez. Prezioa urtero gaurkotuko da KPlaren arabera.

HIRUGARRENA.- Alokairuak BOST URTE (5) iraunen du, kontratua sinatzen den egunetik hasita. Maizterrak hitzarmenari uko egin ahalko dio Udalari bi hilabeteko epeaz jakinaraziz.

LAUGARRENA.- Kontratua sinatzean fidantza jartzea ezinbestekoa izanen da, hilabete bateko kopuruaren parekoa (100,00 €). Fidantza maizterrari itzuliko zaio alokairuaren epea bukatuta, eta betebeharrak behar bezala bete direla frogatuta eta lekua egoera onean dagoela ikusi ondoren.

BOSGARRENA.- Zerbitzuak zentralak direnez, maizterraren kargura izanen dira elektrizitate eta berogintza gastuak, bere kontagailua jartzen ez duen bitartean. Lekuak ez dauka ur-instalaziorik. Zabor-bilketaren tasa eta jarduerak sor ditzakeen antzeko gastuak, jarduera garatzeko edukiaren aseguruaren poliza eta erantzukizun zibilaren aseguruaren maizterraren kargura izanen dira. Maizterrak udalaren Internet konexioa erabil dezake doan. Lekua ongi ez

erabiltzeagatik sor daitekeen kalte oro maizterraren kargura izanen da eta bera izanen da sortutako kalte horien arduraduna.

SEIGARRENA.- *Maizterrak ezinen du lekua beste inori alokatu.*

ZAZPIGARRENA.- *Negozia eskualdatuz gero maizterrari baimena ematen zaio lekuaren alokairu-kontratua besteari uzteko, aldez aurretik eta hilabete lehenago Udalarari negozioa lekualdatzeko asmoa jakinaraziz. Lekualdaketa formalizatu eta alokairu-kontratua eman ondoren, maizterrak hilabeteko epea izanen du era frogagarrian alokatzaileari horren berri emateko; hartara, maizter-lagatzailea eta lagapen-hartzailearen artean sinatutako lekuaren alokairu kontratua emateko adostasun-dokumentuaren kopia aurkeztuko du. Lagapen-hartzaileak maizter-lagatzailearen eskubide eta betebeharrak berberak izanen ditu. Negozia gehiagotan lekualdatuz gero, alokairu-kontratua lagatzeko baimena emanen da zazpigarren klausula honetan ezarritako baldintza berdinetan.*

ZORTZIGARRENA.- *Maizterraren kontura izanen dira lekua egokitzeko lanak, beti ere haren egonkortasuna eta segurtasuna bermatuz, eta beharrezkoa izanen da alokatzailearen adostasuna edo baimena. Obrak alokatzailearen baimenik gabe egin badira kontratua bertan behera utz daiteke, eta bestela, kontratua bukatzean, maizterrari eskatu ahalko zaio lekua berari eman zitzaionean zegoen bezala uzteko edo egin dituen aldaketak mantentzea eta kasu horretan ez luke kalte-ordainik eskatzeko aukerarik izanen. Egindako lanek eraikinaren egonkortasuna edo lekuaren segurtasuna gutxitu badute, alokatzaileak eskatuko ahalko dio maizterrari berehala uztea gauzak hasieran zeuden moduan.*

BEDERATZIGARRENA.- *Maizterra beharturik dago lekua segurtasun eta osasun baldintza egokietan mantentzera, eta adostutako epean erabiltzeko baldintza berdinetan uztera. Maizterrak aurrera eraman behar duen jarduerarako legeak ezarritako segurtasun eta garbitasun betekizun guztiak beteko ditu.*

HAMARGARRENA.- *Sinatzaileetako edozeinek kontratuak dakarren betekizunak bete ezean, bereak bete dituenari eskubidea emanen dio betekizuna betetzea eskatzeko edo kontratua bertan behera uztea eskatzeko. Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak honakoak izan daitezke:*

Errenta ez ordaintzea, edo maizterrak bere gain hartu edo hari dagokion beste edozein zenbatekorik ez ordaintzea.

Epemuga amaitzea.

Fidantzaren zenbatekoa ez ordaintzea.

Lekua berrakuratzea.

Kontratua lagatzea zortzigarren klausulan ezarritakoa bete gabe.

Lekuan engainuz eragindako kalteak edo alokatzailearen baimenik gabe egindako obrak, haren baimena beharrezkoa denean.

Lokalean jarduera gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak, arriskutsuak edo legez kontrakoak egiten direnean.

Lokala erabiltzean maizterrak eragin dezakeen egitezko edo eskubidezko nahastea. Legean ezarritako gainerako arrazoiak.

HAMAIKAGARRENA.- *Baldintza plegu honetan ezarri ez den orotan Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legean eta Toki Entitateen Ondasunen Arautegian kontratuaren prestaketa eta adjudikazioari buruz dioena eta Hiri Alokairuen Legean kontratuaren ondorio eta bukaerari esaten dena eta gainerako legeek diotenari erreparatuko zaio.*

HAMABIGARRENA.- *Aipatutako lokalaren Alokairuaren Kontratuaren bi kopia emanen zaizkio maizterrari, Francisco Arraez Ciordia; kontratu horretan baldintza plegua honen klausulak agertuko dira, formalizatu eta sinatzeko eta sinatzen denetik indarra hartuko du.*

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 9:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.